

BIZIKLETAN BIZIDUNA DOA

Gaur, 2012ko abenduak 23, berriro ere gai izan gara bizikleta zale asko batu eta aldarrikapen bat zabaltzeko: gizarteari esatea, errepideen erabiltze gisa, ez gaudela konforme hartzen dugun tratuarekin. Izan ere, bideak ibilgailuentzako espazio publikoak dira eta, gehienetan, diskriminatu egiten gaituzte bideok erabiltzen ditugunean.

Oraingoan ere, gertakari tragiko batek ekarri gaitu hona, guztiak batuta.

Hartara, beste behin, dei egiten diegu politikoei, Hezkuntza, Kultura, Bide Segurtasuna eta Obra Publikoen esparruetan beharrezko baliabideak ipini ditzaten bizikleta erabiltzea eta ziklismoa praktikatzeko ez dadin arrisku handiko kirola izan; alderantziz baino, izan dadila lehentasunezko eginkizuna mugikortasun iraunkorraren alde egiten duen eta aurrerakoia den edozein hiritar, hiri eta herrialderentzat.

Gogorarazi nahi dugu autoa, kamioia edo bestelako ibilgailuak eguneroko lan tresnatzat dutenen antzera, badaudela bizikleta dutenak ere.

Ahulen eta makalenenganako errespetua beharrezko premisa da bere burua aurreratu eta demokratikotzat hartzen duen edozein komunitatetan.

Aipatutako hiru ardatz horiek aintzat hartuta, honakoak eskatzen ditugu:

- Eskoletara zuzendutako heziketa programa eraginkorra ezartzea bide segurtasuna, mugikortasun iraunkorra eta ingurunearekiko errespetua lantzeko.
- Hiri-segurtasunerako agenteen aldetik, kontrol eta zehaztasun handiagoa zigorrak aplikatzeko orduan.
- Hedabideetan sentsibilizazio kanpaina iraunkorra egitea aztertzea.
- Gure inguruko bidetako azpiegiturak zehazteko irizpideak erabakitzeke orduan, kontsulta egitea txirrindularitza erakunde eta entitateei.

Gure agintariak eta herrikideek jakin behar dute gizarteari egiten diogun ekarpena sintoma bat izateaz gain, erreferente bat ere badela, herritar jantziak, herri aurrerakoia eta garatze bidean doan adierazgarria baita.

Amaitzeko, hemen, jendaurrean gure doluminik bizienak adierazi nahi dizkiegu Iñaki Lejarretaren familiari eta lagunei. Halaber, gogora ekarri nahi ditugu arduragabeko eta gidari lotsagaldukoek eragindako istripuen ondorioz hil diren guztiak.

Eskerrik asko gaurkoan parte hartu duzuen guztioi; nahi bai, baina etorri ezin izan direnei eta bai penintsulako beste hainbat herritatik atxikimendua eta animoak eman dizkigutenei ere. Jarrian, minutu bateko isilunea egingo dugu antzeko egoeran hil diren txirrindularien oroimenez.

Iurreta, 2012ko abenduaren 23a

EN LA BICICLETA VA UNA VIDA - BIZIKLETAN BIZIDUNA DOA

Hoy 23 de diciembre de 2012, hemos sido de nuevo capaces de reunirnos un gran número de practicantes de la bicicleta, para mostrar a la sociedad nuestra disconformidad por el trato que recibimos como usuarios de las carreteras, espacios públicos para los vehículos, que en la mayoría de las ocasiones son utilizados de manera discriminatoria hacia los ciclistas.

Ha tenido que ser una vez más, un trágico suceso el que nos ha traído a todos hasta aquí.

También de nuevo, hacemos un llamamiento a la clase política con el fin de que facilite los medios necesarios en los ámbitos de Educación y Cultura, Seguridad Ciudadana y Obras Públicas, para que la práctica del ciclismo y el uso de la bicicleta en su más amplio abanico de posibilidades, deje de ser una actividad de alto riesgo y pase a ser, por derecho propio, una función prioritaria para todo ciudadan@, ciudad y país que se precie de ser progresista y defienda una movilidad sostenible.

Recordaremos también, que al igual que existen personas que utilizan su vehículo (coche, camión) como elemento de trabajo diario, también los hay otr@s que usan su bicicleta como tal.

El respeto a los más frágiles y a los más débiles debe ser premisa necesaria en cualquier comunidad que se precie de avanzada y democrática.

Sobre los tres ejes citados, reclamamos pues:

- Un programa educativo escolar eficiente en lo que a seguridad vial, movilidad sostenible y respeto al medio ambiente se refiere.
- Un mejor control y mayor rigor en la aplicación de sanciones por parte de los agentes de seguridad ciudadana.
- La consideración de establecer una campaña publicitaria permanente en los diferentes medios de comunicación.
- La necesaria consulta a los estamentos y entidades ciclistas por parte de la institución competente a la hora de establecer criterios y definir las infraestructuras viarias de nuestra geografía.

Nuestros gobernantes y conciudadanos deben conocer que nuestra aportación a la sociedad no solo es un síntoma sino además un referente a la hora de establecer un índice de país culto, próspero y evolucionado.

Para terminar, transmitir públicamente nuestro más sentido pésame a familiares y amigos de Iñaki Lejarreta y nuestro recuerdo a tantos otros que perdieron su vida por culpa de la imprudencia temeraria de conductores desaprensivos.

Con nuestro agradecimiento a tod@s l@s que han acudido, a aquellas personas que por motivos varios no han podido venir y por las adhesiones y los ánimos que hemos recibido desde otros puntos de la península, a continuación guardaremos un minuto de silencio a la memoria de tod@s l@s ciclistas que fallecieron en circunstancias semejantes.

Iurreta, 23 de diciembre de 2012